

KLIMAREN ALDEKO GREBAK: HEMEN DA GRETA THUNBERGEN BELAUNALDI BERRIA

Martxoaren 15erako dagoelarik deituta mundu osoko eskoletan Klimaren Aldeko Greba, milaka gazte irtengo dira kaleetara ikasketak utzita. Udazkenetik ostiralez ostiral zabaltzen doan protestaren protagonistak 15-17 urteko gazteak dira, Greta Thunberg suediarra hartu dutenak erreferentzia nagusi. Belaunaldi berri baten lehen aldarria? Klimaren krisiari irtenbide hiper-teknologizatua eman nahi dion kapitalismo berdearen manipulazioa? Piztu bezain fite itzaliko den memea?

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Guk, lizeoko ikasleek, badugu gure iritzia emateko gu baino zaharragoak diren gehiengoa geldirik delarik. Gure etorkizuna dago jokoan. (...) Ikusten ote duzu zeure burua izanen ez den etorkizun baterako ikasketak egiten? Bakoitzak bere heinean parte har dezake, baina helduek, gure eginahalak peko errekarat eramaten badituzte beren abantailen babesteko eta geldirik egonez, gure indarrak alferrikakoak izanen dira. Dolua ere ezinezkoa izanen da. Geldirik egoteak, jendartearen bukaerarentz garamatza, ekin dezagun elkarrekin orain, bihar bizitzeko”.

Horrela mintzo dira Ipar Euskal Herriko lizeoetako 15-17 urteko ikasle gazteak, Bizi! mugimenduak hedatu duen agirian, gazte guztiei dei egiteko martxoaren 15ean munduko hiri eta bazter askotan deituta dagoen Klimaren Aldeko Greban parte hartzera. Irakurleak azpimarratua izango du: “Baina helduek, gure eginahalak peko errekarat eramaten badituzte beren abantailen babesteko eta geldirik egonez”...

Ikasle protesta berria hasi zen Greta Thunberg gaztearen inguruan. 2018ko abuztuaren 20an, ostirala, orduan 15 urte zituen neskatoak eskola utzi eta Stockholmgo parlamentuaren atarian eserialdia egin zuen, alboan zeukala “*Skolstrejk för klimatet*” (Eskola-greba klimaren alde) zioen afixa. Irailaren 8an esan zuen Suediako Gobernuak klimaren aldeko Parisko ituna sinatu eta karbono isuriak murrizteko eraba-

kia hartu arte, ostiralero egingo zuela eskola-greba.

Thunbergekin *Fridays For Future* –Etor-kizunaren aldeko ostiralak– bataiatu grebak laster bildu zituen jarraitzaileak eskola askotan. Azaroan milakoetan konta zitezkeen Australiako ostiraletako grebalariak. Abendurako uhinak senti zitezkeen mundu osoan: Austria, Belgika, Kanada, Herbehereak, Alemania, Finlandia, Danimarka, Japonia, Suitza, Britainia Handia, AEBak...

Greta Thunbergen hitzak TED famatu batek bildu ditu eta geroztik zuzenean entzun dituzte Nazio Batuen Erakundean bezala Davoseko Forumean, munduko elitearen gailurrean: “Nire asmoa ez da zuek etsitzea: zuek ikara sentitzea nahi dut. Nahi dut zuek ere sentitzea nik egunero sentitzen dudana beldurra eta jokatzeko etxean sutea bageneuka bezala, larrialdi horixe baita daukaguna”.

Hilabeteekin, ordea, azaldu dira zalaparta hau dena hain espontaneo ez dela diotenak. Suedian ikerketa kaze-taritzaren egiten duen Andreas Henriksen izan zen lehenbizikoa adierazten *We Don't Have Time* (Ez dugu astirik) enpresaren operazio bat dela, eta susmo horiek zabaldu dira geroztik bazterretan. Berrikitan Isabelle Attard diputatuak *Reporterre* hedabide ekologistan bildu ditu titulu honen pean: “Kapitalismo berdea ari da erabiltzen Greta Thunberg”.

Laburtuz, *We Don't Have Time startup*-ak [negozio-idea berritzaileetan oinarrituta sortutako enpresak] ematen ei-

dio haize Thunbergi, 100 milioi kideko sare sozial bat antolatu eta klimaren berroketaren kontra gehiago egin dezaten presio egiteko enpresaburuei bezala politikariei. Enpresaren buru den Ingmar Rentzhog omen da garapen iraunkorren alde ari den Global Utmaning *think-tank*-aren zuzendari ere eta Davoseko forumeko handikiekin legoke lotuta, hau da, planeta mundializazio gehiagorik eta soluzio teknologiko are sofistikatuagoz salbatu nahi luketenekin.

“Gaztetxo honen eta bere jarraitzaileen borroka –dio Attardek– osasungarria da eta kontzientzia hartze ekologistarentzako itxaropen iturri. Alabaina, ez dugu inozoak izan behar inguruan dituen heldu batzuen jokabideaz”.

“JUSTU ASPERGERRA DUDALAKO”

Greta Thunbergekin bere Facebookean erantzun die mesfidatiei otsailaren 2an. Hasten da kontatzen nola entzun zuen eskola-greba baten ideia beste gazte baten ahotik eta ondoren nola garatu zuen berak bakarrik, inguruko gazte kezkatuek bestelako bideak hobesten zituztelako. “Baina inor ez dabil –dio Thunbergekin– nire *atzean*, neu ez besterik. Nire gurasoak ere urrun zeuden kezka hauek nik ohartarazi nituen arte”.

Bere izaeraren berezitasun hau ere ez du ezkututzen: “Batzuek irri egiten dute ezberdina naizelako. Baina Aspergerra ez da gaixotasun bat, dohain bat da. Horrela ari direnek diote Aspergerra dudanez ezin izan dudala neuk baka-

OSTIRALERO KALEAN

GRETA THUNBERG STOCKHOLMG
PARLAMENTUAREN ATARIAN
JARRITA ESKOLARI GREBA EGINEZ.



JESSICA GOW / AFTONBLADET

rrik erabaki honetan hasi. Baina justu horrexegatik egin dut, zeren eta ni izan banintz *normala* eta lagunartekoa, orduan elkarte batean sartuko nintzen edo beste bat antolatuko nuen neuk. Baina lagunartekoa ez naizenez, plaza erdian egin dut eskola-greba”.

Beste erantzun hau neskatoa heldu baten gisa hitz egin eta idazten duela-ko kritikatzan dutenei: “Uste duzue 16 urteko gaztetxo batek ezin duela bere kasa hitz egin? Eta gero badira gauzak gehiegi sinplifikatzen ditudala diotenak ere, esate baterako diodanean “klimaren krisiak erantzun sinplea dauka: edo dena beltz edo dena zuri”, “negutegi eragina duten gasen isurtzea gelditu behar dugu” edo “nahi dut zuek ikaratzea” [*I want you to panic*]. Baina horrela mintzo naiz egia delako. Klimaren krisia da inoiz aurrean aurkitu dugun arazorik konple-

xuena eta denetik egin beharko dugu horri aurre egiteko. Baina soluzioa sinplea da: negutegi eragineko gasen isurketa gelditu beharra daukagu”.

Neska, diote besteek, zuk dena ikusten duzu edo zuri edo beltz? “Edo zuri, edo beltz: edo mugatzen dugu beroketa industri aroa baino lehenagoko mailarekiko +1,5°C-ra, edo ez dugu mugatzen. Hau da, edo iritsiko gara haustura puntu batera zeinetan hasiko den erreakzio kate bat gizakiaren kontrolari ihes egingo dioten gertakizunekin, edo ez gara iritsiko. Edo gure zibilizazioak iraungo du, edo ez du iraungo. Bizirauteari dago-kionean ez dago grisarentzako tarterik”.

Beste hitz bat jendeak izutu beharra kritikatzan diotenentzako: “Ikartu behar duzuela diodanean esan nahi dut krisiarekin jokatu behar dugula krisi batekin bezala. Etxea sutan baldin ba-

daukazue, ez zarete eseriko eta hitz egi-ten hasiko garrak itzalitakoan nolakoa berreraikiko duzuen eztabaidan. Etxea sutan badaukazue, korrika irtengo zarete, ondo zainduko duzue denak kanpoan egotea eta suhiltzaileei deituko diezue. Honek paniko maila bat eskatzen du”.

Horrela mintzatzen da Greta Thunberg eta milaka gaztek jarraitzen diote. Sare sozialek –gibeletik norbaitek sus-tatuta– haizatu eta laster ahaztuko du-ten memea ote den? Irakurleak LARRUN batetik ezagutzen duen Ugo Bardik dio: “Gure biziraupena dago jokoan eta armak behar ditugu: historian zehar inongo gerrarik ez da inoiz irabazi na-gusitasun morala erabiliz arma bakar-tzat. Greta Thunberg baldin bada arma *memetikoa*, meme on bat da helburu onez sortua. Beraz, goazen eta borroka dezagun”. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f v